

noaue

**55 langabetu gehiago
azken bi hilabeteetan**

**Amoniakoa topatu
dute Arkaitzerrekan**

**Sagardo Eguna:
Aurten etxean,
etxekoekin**



**Pandemiaren aurrean,
udal ordezkari guztiak bat eginik**

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

ALOKAIRURAKO PISUAK BEHAR DIRA,
ESKAERA HANDIARENGATIK!

ALOKAIRU SEGURUA

Zure etxerako inkilino bikaina
aurkituko dugu,
12 hilabeteko errenta bermatua.

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com



NOAOA
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa

943 37 36 13

Ordutegia:

09:30-13:30

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

info@noaoa.eus

ATE IREKIEN
JARDUNALDIA

Maiatzaren 23an
eta 27an

**AURTEN
ONLINE!!!**

www.lhusurbil.eus



ez galdu aukera!!

ZATOZ GU EZAGUTZERA!!

**MAIATZAREN 25tik
aurrera**

**TERRAZA
ZERBITZUA**



PLATER KONBINATUAK,
HANBURGESAK,
OGITARTEKOAK ERAMATEKO
943 55 93 35

Albisteak iruditan

55 langabetu gehiago azken bi hilabete hauetan

Covid19-a ekonomia arloan izaten ari den eragina nabaritzen hasia da. Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleratu dituen azken datuen arabera, 276 langabetu zenbatu ditu apirilean Usurbilen. Martxoan baino 31 langabetu gehiago, otsailean baino 55 langabetu gehiago.

334tik 75era murriztu da kontratazioa otsailetik apirilera

Lanik gabeko herritar gehiago, eta kontratatu gutxiago. Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleratu berri dituen apirileko datuen arabera, asko murriztu da erregistraturiko kontratu kopurua. Otsailean 334 izan ziren, martxoan 259ra gutxitu zen, eta joan den hilabetean, 75 kontratu baino ez ziren hitzartu.

Alarma egoera indarrean denetik honenbestez, azken bi hilabeteotan, 259 kontratu gutxiago erregistratu dira udal-erri honetan. Datu orokorretan aldaketa nabarmena egon arren, orain arteko joe-



Estatuko Enplegu Zerbitzuak 276 langabetu zenbatu ditu apirilean Usurbilen.

rek bere horretan segitzen dute. Erregistratu diren kontratu ia denak aldi baterako izan dira, baita apirilean ere; 75etik 65. Gizonezko gehiago kontratatu dira (43) emakumezkoak baino (32). Eta sek-

toreka, zerbitzuek biltzen dute kontratatu gehien (75etik 50 kontratatu).

Usurbilen bezala, Buruntzaldean eta Gipuzkoan ere beherantz egin du kontratazioak.

Laburrean

Gipuzkoan barrena mugitzeko aukera

Aste hasieratik norbera bizi den probintzian barrena mugitzea baimendu du Eusko Jaurlaritzak. Ariketa fisikoa egin edota paseatzeko orain arteko ordutegiek indarrean segiko dute.

Zumarteko matrikulazioa ekainean hasiko da

Musika Eskolatik iragarri dutenez, 2020-21 ikasturterako matrikulazio epea, ekainaren 1etik 5era izango da. "Laster jasoko duzue informazio guztia", aurreratu dute zumarte.eus ataritik.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du COVID-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Antzitz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal Herrira!



Luis Aranalde

Biharamuna

Hau duk marka, hau, arkakuso kaka baino milioi bat aldiz txikia goa den xomorro batek dena hankaz gora jarri dik. Gure harrokeriak, handikeriak eta abarrak tokitan gelditu dituk, esaten zidan lagun batek. Ez zuen arrazoi faltarik. Birus ikusezin batek jarri gaitu geure lekuan.

Oraingo hau omen da jasaten dugun hirugarren umiliazioa: lehenbizikoa izan zen Kopernikok esan zigunean lurra dela ziba koskor bat bezala Esnevide edo Via Lactearen ertz batean bueltaka dabilena, ez garela alegia kosmosaren zilborra. Bigarrena Darwinek adierazi ziguna: gizakiok ez gara jainkoizko hats batek sortuak, eboluzioaren fruitu apal bat baizik, beste izakien gisa. Fededunontzat jainkoizko arnas hori izadi osoan dago eta ez gizakiongan bakarrik.

Badirudi iritsi dela deskonfinamenduaren garaia, giharrei herdoila kentzen hastekoa, baina emeki-emeki. Orain funtsezko galdera hau da: biharamunean zeri helduko diogu, konfinamenduaren aurreko bizitzari, estiloari, lehengo bizitza berreskuratzeari lotuko gataizkio, ala “normaltasun berri” bat sortzeari ekingo diogu? Hor dago gakoa. Pandemia honen ondoren lehengo nor-

maltasunera itzultzen bagara, “autokondenatzea” litzateke Leonardo Boff filosofo eta askatasunaren teologiaren sortzaile nagusiaren esanetan.

Boffen arrazonamendua sinplea da: unibertsoak hoge mila milioi urte ditu, lurrak ia bost mila milioi, biziak hiru mila milioi eta gizakiok 3-4 milioi urte. Izarrak, lurra, bizia, gu..., Denok bat osatzen dugu, denok etxe berean bizi gara. Espaziotik hartutako argazki batean lurra ikusten omen da “puntu urdin xume” gisa. Hor gaude gu. Lurtar gara, hauts “maitemindu” Quevedoren hitzetan, “izar hauts” Ernesto Cardenalen definizioa, lur pentsalari. Gertatzen dena da lurraren zatitxo bat garela ahanzi egin dugula eta bere ondasun guztiak harrapatzen saiatu garela. Eta irrika hori asetzeko zientzia eta teknika bere zerbitzuan jarri ditugu. Eta lurra gaixotu egin da, oreka galdu du: horren adierazgarri klima aldaketa, lurrikarak, lehorten luzeak, uholdeak, koronabirusa... Lurrak bere burua defendatzen du pandemia honenkin. Gu nonbait bere zati usteldua gara eta moztu egin nahi du. Supituki esnatu gara seko izututa. Gai izango ote gara, dio Boffek, Koronabirusak bidali digun abisu serio hori jasotzeko?

Aita Frantziskok badu esaldi potolo bat: “ez badugu egiten

konbertsio ekologiko erradikal bat, lurraren erreakzioa latza izango da eta koronabirusa baino bakteriatik sortutako bat bidaliko digu ea desagertzen garen behin betirako bere bistatik”. Sustraiko, erabateko barne aldaketa aldarrikatzen du Frantziskok, edo bestela gureak egin du. Erroko aldaketa honek eskatzen du:

1- Etorkizun “berdeago” bat eraikitzea adituen ustez, izan ere, suizidio kolektibo baten atarian baikaude. “Txoro alae-nak!”, esango digu ama lurrak sortu zaigun aukera hau aprobetxatzen ez badugu. Planeta ezin dugu bihurtu zabortegi. Gure ama, gure etxea eta gure babesa da.

2- Etorkizuna denontzat da edo ez da inorentzat. Ez da posible bizitza planteatzea besteak existituko ez balira bezala. Pandemia hitzak berak esaten du: pan (guztia), demo (herria) eta ia (dagokiona), hau da, mundu osoari, gizarte guztiari dagokion zerbait da larrialdi hau, beraz sendaketa ere pertsona ororentzat sortu behar dugu. Edo denok salbatuko gara edo inor ez.

3- Geure ahuleziaren kontzientzia. Pertsona eta sistema bezala oso makalak, ahulak gara. Handi ustea bai galanta, baina alderdi frankotan oso eskasak.

4- Berdintasuna: gizaki guztiok gara berdinak, batzen gaituena

askoz sendagoa da banatzen gaituena baino nahiz eta mugak eta hesiak eraikitzen saiatzen garen. Naturak ez du horrelakorik egiten, ez du arrazez eta maila sozialez ezer ulertzen. Elkartasuna lantzen ez dugun neurrian ama lurrak barre egingo digu. Anaitasuna gauzatu nahi badugu, mundu osoko kontratu sozial baten beharrean aurkitzen gara.

Biologo, kosmologo eta ekologista askoren ustez ez zaigu zilegi lehengo normaltasunera itzultzea. Bi arrazoi aurreratzen dituzte: lehenbizi, iseka bat izango litzateke pandemiak jota hil diren guztiekiko. Eta bigarrenez, horrek adieraziko luke ez dugula ezer ikasi naturarengandik jaso dugun dei larriaren ondoren, alegia, harreman berri batzuk sortu behar ditugula ama lurrarekin.

Nire lagun Xabier Euskitzek honela idazten zuen duela egun batzuk: “Supituki, konturatu gara botereak, edertasunak eta diruak ez dutela deus balio, eta ezin digutela hain beharrezko dugun oxigenorik eskaini. Uste dut mezu hau bidali nahi digula (ama lurrak): ez zarete beharrezkoak. Airea, lurra, ura eta zerua ederki gaude zuek gabe. Itzul zaiteztenean gogoratu nire gonbidatuak zarete, ez nire jabeak”.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Maddi Aburruza

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Gipuzkoako foru funtsetik %20 gutxiago jasoko du Udalak

Zergen bidez iaz baino %20-25 gutxiago jasoko duela aurreikusia du Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrean, iaz baino 1.000 milioi-tik gora euro gutxiago. Testuinguru honetan, 200 milioi euro gutxiago izango ditu modu erabilgarrian Foru Aldundiak 2020rako. Ondorioz, “aurrekontua errealitate berri honetara egokitu behar izan du”. Murritzeta honek erakundee-tan zuzenean eragingo duela aurreikusi du Aldundiak; tar-tean udaletan. Udalentzat di-ru-iturri garrantzitsua den foru funtsaren bidezko finantzia-zioa %20an gutxituko baita.

Datorren egoerari aurre egi-teko zenbait neurri iragarri ditu Aldundiak. Arlo guztietan doiketak egin dituztela berri eman dute foru gobernutik, lehentasunezkoztat jotzen di-tuzten bi eremuotan izan ezik; gizarte politikan eta ekonomia-ren sustapenean.

100 milioi euro gutxiago udalentsat

Egoera honek zuzenean era-gingo die Gipuzkoako udalei ere, udalon finantzaketarako diru-iturri nagusietakoa den foru funtsa murriztu baita; “zuzenean dago zerga bilke-tari lotuta foru funtsa” Aldun-



Udalentzat diru-iturri garrantzitsua den foru funtsaren bidezko finantziazioa %20an gutxituko da.

FORU ALDUNDIA

Arlo guztietan doiketak egin dituztela berri eman dute foru gobernutik, lehentasunezkoztat jotzen dituzten bi eremuotan izan ezik; gizarte politikan eta ekonomia-ren sustapenean

diaren esanetan. Iazko urte amaieran udalek foru funts honetatik zenbat diru jasoko zuten aurreikuspena zehaztu zuten Euskal Finantzen Kon-tseiluan. “536 milioi eurokoa” zen une hartako aurreikuspe-na. Udalok foru funtseko dirua

lau hilero jasotzen joaten dira eta urtea amaitu eta hurrengo otsailean likidazioa egiten da. Aurtengoan, lehen ordainketa, otsailekoa eginga zutela heldu ginen alarma egoerara.

Ordutik bizi izan dugun errealitate berri honen eragi-nez, Udalek 100 milioi euro gu-txiago kobratuko duten aurrei-kuspene du Aldundiak. Udalek itzuli beharreko dirua datorren 2021eko otsailean kolpe batean bueltatu beharrean, herriko etxeei 2020ko ordainketei %20 ko murrizketa aplikatzea era-baki du Aldundiak. Erabaki hau jasotzen duen foru dekre-tua onartu du Aldundiak.

“Larria da erabakia eta erabakia hartzeko modua bera ere”

Udal finantziazio iturri na-gusietakoa den foru funtsa %20a murrizteko Foru Al-ndundiak onarturiko dekretu hau, erabaki larritzat jo du sare sozialen bidez, Usurbil-go alkate Agurtzane Solabe-rrietak. “Larria da erabakia bera (udalon diru sarrera nagusia baita foru funtsa) eta erabakia hartzeko mo-dua bera ere, udalokin ezer hitz egin gabe eta adostasun-ik bilatu nahi izan gabe”, adierazi du alkateak. Alde bakarrek halako erabakien aurrean, adostasunaren alde egin du. “Garai zail hauetan inoiz baino beharrezkoagoak dira akordio indartsuak, eta ez aldebakarreko erabakiak”.

56 alkateren proposamena alboratua

Herrialdeko 56 alkateek pro-posamen alternatiboa aur-keztu zuten hilaren 15eko Gipuzkoako finantzen kon-tseiluan. “Covid-19aren kri-sian ere, udalek lehen mai-lako erantzuna eman dugu. Ez dugu onartzen alde-bakarrez harturiko erabaki hau eta irtenbidea adostea proposatzen diogu Foru Al-ndundiari”. Udal Foru Fondoa (UFFF) bueltatzeko onartu-riko erabakia atzera bota-tzea eta udalentsat 2020ko aurrekontu aurreikuspenak bere horretan mantentzea eskatu zioten 56 alkateok Al-ndundiari. Baita “zerga bilke-taren jaitzieraren ondorioz, foru funtsaren beherakada itzultzeko hiru urteko epeal-dia ezartzea 2021ean hasita, inongo interesik gabe”. Azke-nik, 20 milioiko diru-lagun-tza bat bideratzea Aldundiak Udalei, “Covid19ko krisiak sorturiko gainkostuak arin-tzeko asmoz”. Alkateon esa-netan, proposamenok albo-ratu zituen Foru Aldundiak.

Malgutasun eskaera udaletatik

Murrizketa honekin batera, Udaletatik jasotako bi eskaera ere aintzakotzat hartu dituztela berri eman dute Foru Aldun-ditik; “malgutasuna eskatzen zuten udal aurrekontuei begira, eta tasetan hobariak eskatzen zituen”.

Foru Aldundiak konfiantza osoa erakutsi die Gipuzkoako

udalei, “badakigulako modu zuhurrean kudeatzen dituz-tela beraien diru publikoak, baina zuhurtziaz jokatu behar dugu guztiok”. Foru Aldun-diak aurrekontua egokitu duen moduan, “udalen txanda da oraingoan. Gure aurrekontuak egokitzea, orain udalek egin beharko duten ariketa izango

da, herritarrek behar dituzten zerbitzuak eskainiz, dagoen diru bilketara egokituta, beste modu batean ez baita posible”.

Egoera honek udalei ekarri-ko dizkien zailtasunei begira, “Aldundia beti aldamenean izango dute, laguntzeko gaude. Egoera honi sendo erantzuteko prest gaude”.

Imanol Txapartegi, Aginaga: “Jende asko bertan geratu zen krisiaren lehen asteetan”

Herriko merkataritza hasi da suspertzen. Jatetxe batzuk etxera eramateko zerbitzua jarri dute martxan, kafetegiek terrazak zabaltu dituzte, sagardotegi batzuk etxez etxe ari dira sagardoa banatzen, tabernariak ekainean dira lanean hastekoak... Badira ordea, etenik egin ez duten saltokiak. Etxealdia edo konfinamendua hasi zenetik hona, lanean jarraitzeko aukera izan dutenak. Herritarrei funtsezko zerbitzua eskainiz, bide batez esanda. Horien artean dira Txapartegi harategia edo Esnaola denda. Aginagan dago bat, Santueñean bestea. Ezaugarri komun bat dute biek: auzoko denda bakarrak dira biak.



“Lehen boladan bai, dezente handitu zen lana”, adierazi digu Imanol Txapartegik.

NOAUA! Aginagan zabalik dagoen denda bakarra da zuena. Imanol Txapartegi. Hala da, bai.

Harategia izateaz gain, beste-lakoak ere saltzen dituzu. Fruta, barazkiak, garbikariak... Denetatik pixka bat dugu.

Konfinamendua hasi zenean, jendeak ezin zuen herritik aterara. Horrek eragina izango zuen zuen jardunean. Lan gehiago egin al duzue bi hilabeteotan? Lehen boladan bai, dezente

IMANOL TXAPARTEGI

“Bezera bakoitza atenditu eta gero, eskuak garbitu behar. Azkenean, gauza bera egiteko denbora gehiago behar da orain”

handitu zen lana. Saltoki handietara ez joateagatik, jende asko bertan geratu zen. Lehen bi edo hiru asteetan nabaritu zen.

Segurtasun neurri bereziak ezarri ziren. Hemen, bezeroek

banan bana sartu behar dute.

Hau dena hasi zenean, merkatarik elkartekoak Usurbilen batu ginen eta neurri batzuk hartzea erabaki genuen. Gure kasuan, bezeroak banan bana hartzen ditugu.

Tarteka ilarak sortuko dira denda atarian, ezta?

Bai, larunbatetan gehienbat. Eta bereziki lehen bi asteetan. 14:00etan ixten dut baina 15:00ak arte geratu izan naiz jendea atenditzen.

Dena den, lan berbera egi-

teko denbora gehiago behar duzu orain. Bezera bakoitza atenditu eta gero eskuak garbitu behar...

Neurri hauetara ez geunden ohituta. Jendeak nola erantzun du?

Orokorrean ondo erantzun du jendeak. Bakarren bat beti dago “mugitu, azkarrago”, itxaron behar izan duelako. Baina ondo moldatu gara. Auzo bat izanda, hemen jendeak lasaia-go hartzen ditu gauzak. Ez da beste toki batzuetan eman den jende pilaketarik izan.

“Gauzak lehengora bueltatzen ari dira orain”

NOAUA! Krisi hau amaitzen denean, batzuk diote bertakoa eta gertukoa gehiago baloratuko dugula. Ados al zaude?

Hasieran pentsatzen nuen baietz, hala izango zela. Baina gauzak “normalizatzen” hasi diren heinean, jendea

lehengo ohituretara bueltatzen ari dela iruditzen zait. Hasieran bai, krisiaren hasieran aurpegi berriak ikusten zenituen hemen. Baina horiek pixkanaka desagertzen ari dira berriz.

Aginagan bizi arren, batzuk ez ziren zuregana etortzen.

COVID-19 birusak eragin-dako krisiaren ondorioz, baten bat hurbilduko zen zure dendara lehen aldiz.

Egun batzuetan azaldu zen, baina gauzak lehengora bueltatzen ari dira orain. Beraz, aurrera begira ez dut al-daketa handirik ikusten.

Gainontzeko saltokietan bezala, hemen ere antzeko psikosia bizi izan al zenuten komuneko paperarekin edo legamiarekin?

Bai, bai! Baten bat legamia eroatera etorri, argazkia atera eta whatsapp bidez “legamia topatu dut!” zabaltu ere bai.

Juantxo Esnaola, Santuenea: “Hemen ez dugu halako estuasunik izan”

NOAUA! Santueneko denda bakarra da zuena. Bi hilabeteotan zabalik izan duzue. Lana handituko zitzaizuen, ezta?

Juantxo Esnaola. Keba, antzekoa izan da. Hemen ez dugu halako estuasunik izan. Ez da komuneko paperik agortu eta ez da halakorik izan hemen.

Legamiaren salmenta igoera ere igarri al zenuten?

Bai, eta egun batean zerbeza agortu zen. Baina hura gure errua izan zen. Bestela ez zuen faltatu beharrik.

Beraz, antzeko martxan aritu zarete.

Bai. Jendea etxean dagoenez, kontsumoa handitu egin da. Hori nabaritu dugu. Etxean dagoenak etxean jaten du. Baina bestetik, egunero etortzen den emakumea ez da etorri.

Zergatik ez da etorri? Etxetik ateratzeko beldur delako?

Hori da. Eta zer gertatu da? Bere seme-alabak ez direla hona etorri, haiek ere handietara joan dira. Eguneroko bezero horiek faltan bota ditugu.

Baina lehen etortzen ez zen bizilagunen bat hurbilduko zen egun hauetan, ezta?

Lehenengo asteen bai. Batzuk azaldu ziren, behin ere azal-



“Lehen asteetako eromena eta gero, normal-normal egin dugu lan”. Juantxo Esnaolaren denda denetarik saltzen dute.

JUANTXO ESNAOLA

“Jendea etxean dagoenez, kontsumoa handitu egin da. Baina bestetik, egunero etortzen den emakumea ez da etorri. Eta bere seme-alabak handietara joan dira”

tzen ez direnak. Eromena hurrexe izan genuen. Lehen aste hartan eta hurrengokoan ere bai.

Jendea urduri zebilen eta be-

har baino gehiago erosten zuen gainera.

Orduantxe egon zen mugimendua, bestela, guk normal-normal egin dugu lan.

Marratxoak jarri dituzue lurrean. Eta ‘Hiru lagun baino ez’ kartela duzue denda atarian ipinia. Ilarak sortuko ziren dendaren kanpoaldean.

Bai, baina azkeneko orduan. 9:30-11:00ak artean oso jende gutxi ibiltzen da. Oso gutxi. Jendeak ez du jende askorekin egon nahi, eta iruditzen zaio

azken momentuan, jende gutxiena orduan ibiliko dela. Eta alderantziz da. Esanda alperrik da. Ez dugu horrelako estuasunik izan. Lana egin dugu, bai, baina gehixeago saldu bada kontsumoa igo delako izan da.

Denda barruan hiru pertsona bakarrik atenditu ditzakezue. Jendeak ondo bete al ditu segurtasun neurriak?

Bai, ez dugu inongo arazorik izan. Jendeak errespetatu du. Gainera gehienak maskararekin etorri dira. Ondo.

“Saltoki handiak izan dira ondoen atera direnak”

NOAUA! Bertakoa eta gertukoa gehiago baloratuko dugu aurrerantzean. Hori diote batzuk. Ados al zaude? Ezta bat ere.

Lehengora itzuliko gara.

Dudarik gabe gainera. Bi hilabeteotan, zeinek irabazi du?

Saltoki handiek. Handiek irabazi dute. Ikusi al duzu ofertarik egun hauetan? *Semana sin IVA* edo antzekorik? Ez dute oferta alerik egin. Zergatik? Askotan saltzen ari direlako. Ondoan atera direnak handiak izan dira.

Jendeak ere handietara joko du

hortaz.

Gu auzoko despentsa gara. Etxean, azken orduan ezer falta bada –irina edo ogiren bat–, badakite hemen gaudela. Baina badago beste kliente mota bat. Fidela dena, bizitza osoan etorri dena. Harek mantendu gaitu. Auzora etortzen den jende

berria ez da hemen azaltzen. Oso gutxi. Handietara joaten da, asteeko erosketa egitera.

Eta zure bezero fidelen artean, baten batek eskertu al du asteotan egin duzuen lana?

Baten batek bai, eskertu du gure lana.

COVID-19aren kalteei aurre egiteko neurri sorta berria iragarri du Udalak

Ziurtasuna eta adostasuna eskaini nahi dizkie Usurbilgo udalbatza osatzen duten hiru talde politikoei, COVID-19aren eraginez bizi dugun “osasun krisi latz honi”. Herri gisa modu bate-ratuan erantzutea; eta horren irudia izan zen udalak jendaurreko zerbitzua berreskuratu zuen maiatzaren 14an udalbatza aretoan egin zuten agerraldia.

Pertsonak eta bereziki kolektibo zaurgarrienetako herritarrek erdigunean jarrita, osasun krisialdiaren kalte ekonomikoak arintzeko hainbat neurri hartu dituzte hilabeteotan eta bide berean sakonduko dute. “Ezohiko neurriak eta erabakiak etengabe hartzen ari gara egunez egun aldatzen ari den egoerari ahalik eta egokien erantzuteko”, zioen alkate Agurtzane Solaberrietak, EH-Bildu (Beñat Larrañaga), EAJ (Josune Urkola) eta PSE (Patxi Suarez) udal taldeetako ordezkari bana bildu zituen agerraldian.

Nahiz egoera zailean egin. Udalaren diru-sarrerak %20 an murriztuko dela aurreikusia dute eta horrek “2020ko aurrekontuetan izugarritzko



Ziurtasuna eta adostasuna eskaini nahi dizkie Usurbilgo udalbatza osatzen duten hiru talde politikoei, COVID-19aren eraginez bizi dugun “osasun krisi latz honi”.

UDAL ORDEZKARI POLITIKOAK

Lehen-tasuntzat jotzen dituzte, tokiko ekonomia eta euskal kultur-gintza lagundu eta gizarte babesa bermatzeko

eragina izango du, berregokitu beharko ditugu eta gastuen atala gutxitu”. Lehen kalkuluen arabera, 1,6 milioi euroko mu-

rrizketa aplikatu beharko du Udalak. “Beraz ariketa zaila dugu eskuartearen”. Halere hiru udal talde politikoei indartu edo lagundu beharreko hiru eremu zehaztu dituzte. Lehen-tasuntzat jotzen dituzte, tokiko ekonomia eta euskal kultur-gintza lagundu eta gizarte babesa bermatzeko.

Elkar zaintza, elkartasuna eta erantzukidetasuna ardatz hartuta, orain arte hartutako neurriak (hainbat elkarlanean

herritar eta merkatariekin) segida emango diete lerrootan bildu ditugun hauek: oinarriko elikadura bermatzeko diru-laguntzak, ahalik eta zerbitzu publiko gehien bermatzea langileak babestuta; erosketak egiten laguntzeko osatu den herritarren laguntza sarea, indarkeria sexistari aurre egiteko protokoloa indartzea, adinekoen bakardadeari emandako sostengua, hondakinen bilketa berezia...

410.000 euroko inbertsioa eragin du jada COVID-19ak

Osasun krisialdiari aurre egiteko orain arte hartutako neurriek 410.000 euroko inbertsioa egin beharra eragin dio Udalari. Kopuruok nabarmendu dituzte:

■ Udal tasa eta prezio publikoak ez kobratzea edota he-

rritarrei itzultzea (itxita dagoen Kiroldegia, Haur Eskolaren eta etenda geratu diren ikastaroen kasuan): 290.000 euro.

■ Elikadura bermatzeko diru-laguntza: 20.000 euro.

■ Herri merkataritza sustatzeko neurriak:

1.- Erosketa bonoak, diru-laguntza lerroak: 50.000 euro.

2.- Bonoen salerosketarako webgunea: 10.000 euro.

3.- Babes ekipamendua eta desinfekzio gastuak: 20.000 euro.

4.- Komunikazio kanpaina: 20.000 euro.

■ Aurrerantzean hartuko diren neurriak: udal zerbitzuak eteteagatik azpikontratatu-tako enpresei kalte-ordainak ordaintzea, gizarte-laguntzetarako aurrekontua handitzea, kultur eskaintza egokitzea.

Herrian bizi, herrian erosi



Itxialdiak eragindako gastuei aurre egiteko, taberna, kafetegi eta ostatuei zuzenduriko 400 euroko diru-laguntza lerro zuzena iragarri du Udalak.

Herriko merkataria eta ostalariekin batera izan dituzten azken asteotako hartuemanek erabaki dituzte sektorea laguntzeko neurriak. “COVID-19ak sortu duen krisi honek areagotu baino ez du egin jadanik bizirauteko zailtasunak zituen sektorearen egoera”. Horregatik Udalaren asmoa sektorea babestu soilik ez, bultzada ematea da. “Tokiko kontsumoa sustatzeko”, hainbat egitasmo abiaraztekoa da Udala asteotan.

Sektorearen datuak

- 108 enpresa eta establezimendu ditu erregistratuak Udalak.
- 74 negoziok (%68,5) jarduera ekonomikoa eten behar izan dute.
- 40 merkataritza saltokietatik 15ek itxi behar izan dute.
- Ostalaritza jarduera guztia eten da; 38 jarduera guztira.
- Bestelako zerbitzuetan, 29tik 21ek itxi dute.
- Zabalik izan diren elikagaien saltokietan: zortzik salmenta gehitzea lortu dute, 10ek salmenta egonkor mantentzea eta 15en salmenta jaitsi da.
- Sektoreko langile guztien (357) %69a, 248 langile (101 autonomo eta 147 langile kontratatu) langabezian edo ERTE-an. 166 ostalaritzan, 42

EROSKETA-BONOAK

Tokiko saltoki eta establezimenduetarako erosketa bonoak eskuratzeko webgunea garatzen ari da Udala

bestelako zerbitzuetan eta 40 merkataritzan.

- Sektoreko fakturazioan 2.079.892 euroko jaitziera itxialdiko 5. astean. 2,7 milioi euroko zuzeneko eragin ekonomikoa.

Neurriak:

- Eskaini ez den udal zerbitzuagatik tasa edo prezio publikorik ez kobratzea. Zergen ordainketa atzeratu eta malgutzea.
- Tokiko saltoki eta establezimenduetarako erosketa bonoak eskuratzeko webgunea garatzen ari da Udala. Orain arte jarduera etenda izan edo salmentan beherakada izan duten 30etik gora saltokiek parte hartuko dute. Webgune horretan saltoki bakoitzak erakusleihu propioa izango du.
- Bonoen bidez erosketak egiteko aukera itxita egon diren edo salmenta jaitsi zaien saltokietan: 20, 50 eta 100 eurokoak eskuragarri. %20 ko deskontua aplikatuko da,

deskontua Udalak ordainduko dio saltokiari. Bono guztiak salduta, saltoki bakoitzak 2.000 euro jasoko ditu (1.600 euro herritarren eskutik, 400 euro Udalaren eskutik). Herritar guztiek bonoiez baliatzeko aukera berdintasuna izan dezaten, bakoitzak 200 euroko muga izango du. Ekimenak herritarren artean harrera ona badu, ez da baztertzeko epe motzean beste hainbeste bono salgai jartzea eta “agian beste merkataria batzuk ekimen honetan parte hartzea”.

- Bonoen sisteman lekua izatea zaila ikusten dutenez, itxialdiak eragindako gastuei aurre egiteko taberna, kafetegi eta ostatuei zuzenduriko 400 euroko diru-laguntza lerro zuzena iragarri du Udalak. Alkate dekretu bidez onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak kaleratu bezain laster eskabideak aurkezteko epea zabalduko da.

- Herri merkataritza eta ostalaritza indartzeko komunikazio kanpaina iraunkorra urte osorako.

- Babes ekipamenduen (eskuarrak, gela eta maskarak) hornidura merkatarientzat.

- Beste diru-laguntza lerro batzuen azterketa, autonomo edo enpresa txikientzat. Herriko sortzaileak eta ekintzaile berriak babesteko.

Gizarte babesa indartzea

90.000 euroko diru partida zuen aurreikusia Usurbilgo Udalak 2020ko aurrekontuetan, “askotariko egoerei erantzuteko” helburua duten gizarte laguntzetara. Baina beharren arabera kopuru hau haztea aztertu eta baloratzea aurreikusia du. Bizi dugun egoeran, “gizarte babesa indartzea” baita Udalaren erronka nagusietako bat.

Laguntzaren artean da, COVID-19aren eraginez bizi dugun egoera honetan, elikadura bankuak itxi eta oinarritzko elikadura bermatzeko Udalak irekitako ezohiko diru-laguntza lerro zuzen berria. “Une honetan 30 familiek jasotzen dute diru-laguntza hau ere”. Laguntza hau “ohiko bideetara” eramateko lanean ari da egun Udala. Herritarrek eskura dituzten gizarte zerbitzuei buruzko informazio zehatza jasoko dute egunotan etxean, baina oinarritzko beharrei aurre egiteko laguntza beharrean direnei Gizarte Zerbitzuetara deitzea eskatzen die Udalak. Hementxe eremu honetan, momentuz Udaletik iragarri dituzten neurri nagusiak:

- Orain arte, oinarritzko elikadura bermatzeko ezohiko bidetik eskainitako diru-laguntza etorkizunean ohiko bidetik eskaintzeko lanean ari da Udala.

- Gizarte laguntzen informazioa biltzen duten eskuorrien banaketa etxex etxe egunotan.

- Udal aurrekontuetan gizarte laguntzetara bideraturiko 90.000 euroko partidaren hazkuntza, beharren arabera.

- Oinarritzko gastuei aurre egiteko zailtasunak dituztenei Gizarte Zerbitzuekin hartuemanetan jartzeko deia, 943 377 110 telefono zenbakaren bidez.

Usurbilgo “deseskalatzerako” balizko datak

U ne honetan duten informazioaren arabera, bai Espainiako Gobernutik zein Eusko Jaurlaritzatik jasotako irizpideak eta egoera orokorra aintzakotzat hartuta, eta segurtasun neurriak beteta asteotan zenbait zerbitzu martxan jarri asmo du Udalak. COVID-19aren eraginez bizi dugun itxialdian jardunari eutsi dion arren, azken hilabeteotan ezinbestean etendako hainbat zerbitzu berriz martxan jartzeko balizko lehen datak eza-gutzera eman ditu, zerbitzuon etenaldiarekiko herritarrek agertu duten jarrera ulerkorra eskertzearekin batera.

Maiatzaren 14az geroztik:

■ Udal erregistroko eta gizarte zerbitzueta jendaurreko zerbitzua martxan. Aurrez hitzordua eskatu behar da telefonoz. Telefono deian kontsulta mota zein den azaldu beharko da. Kontsultei ahal den neurrian telematikoki erantzutea hobetsiko da. Hala ezin bada, aurrez aurreko hitzordua jaso ahalko du herritarrek, eta udal eraikinera sartu, beti ere norberak eramandako maskarekin. Ezingo balitz, bertan banatuko zaio.

Ekainak 1:

■ Liburutegiaren mailegu sistema martxan jarriko dute.
■ Potxoenerako lokalak herritarren erabilerarako irekitzea.
■ Kultur ekintzen agenda berri martxan.



Udal erregistroko eta gizarte zerbitzueta jendaurreko zerbitzua martxan da maiatzaren 14az geroztik.

UDAL LIBURUTEGIA

Liburutegiaren mailegu sistema ekainaren 1ean jarriko dute martxan. Eta liburutegiko sarbidea ekainaren 15ean irekitzea aurreikusiko du Udalak

Ekainak 15:

■ Liburutegirako sarbidearen irekiera.
■ Ekaina erdialdean, Oiardo Kirolegiko gimnasioaren irekiera.

Data zehatzik gabe:

■ Gaztelekua, taxi-busa, ludoteka, jubilatuen egoitzen edota Haranerren irekiera. Udala erabaki gehiago hartzeko moduan den unean, herritarrei jakinaraziko zaie.

Oharrak:

■ Martxan jarritako zerbitzuak

modu mugatuan eskaintzen hasiko dira, higiene araudia kontuan hartuta, aforoa kontrolatuta egingo da. Tokian tokiko protokoloa komunikatuko du Udalak.

Gipuzkoan barrena mugitzeko aukera

Astelehen honetatik (maiatzak 18) aurrera, udalerri barruan soilik ez, Gipuzkoa osoan mugitzeko aukera dago. Hala jakinarazi zuen aurreko larunbatean (maiatzak 16) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak argitaratu duen lehen-dakaritza dekretuak. Igandean Madrildik, datozen egunotan 10.000 biztanletik beherako udalerrietan ariketa fisikoa egin edota paseora irteteko ordutegiak ezabatzea baimentzeko zuten.

“Zorretan gaude herriko sortzaileekin”

Segurtasun baldintza guztiak beteko dituen usurbildarren-tzako egoera berrira egokituriko kultur eskaintza erakar-garri, berri eta indartsua osatzeko lanean dabil Udala herriko taldeekin elkarlanean. Horretarako egin zuen Kultura Sailak bilera erronda joan den astean, jai batzordeekin eta arlo honetako diru-laguntzak eskatu dituzten eragileekin. “Ikusiko dugu epe motzean, egunotako hartuemanok zer emaitza uzten duten”, zioen alkate Agurtzane Solaberrietak. Online bidezko nahiz formatu ezberdinetako kale ekintzak tartekatu asmo dituzte. Bide batez, noski, “ahal den neurrian kale bizitza suspertzea” litzateke asmoa.

Kulturak ere, kolpe latza

Itxialdi honetan zehar, Usurbilgo Artixtek egindako “ahalegina, lana” eskertu nahi izan zuen alkateak, “usurbildarrei kultur eskaintza paregabe bat eskaintzeko, modu bolondresean gainera. Zorretan gaude herriko sortzaileekin”. Euskal kulturgintza babestu beharreko lehentasunezko eremutzat jotzen du Udalak, sektore honek ere osasun krisialdi honetan “kolpe latza” jaso duela aitortuta.



Aurreko igandean “amaiera festa” egin zuten Usurbilgo Artixtek.

Otar-Goxo
Elkagaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaia.eus

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Elkarlanean dihardugu.

Pertsonen bizitzak hobetzen ditugu.

Garapenerako lankidetzarako euskal eragileak.



(H)ABIAN

EUSKAL
FONDOA



EUSKO JAURLARITZAREN
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA

USURBILGO KOMERTZIOEN IREKIERA

**LIZARDI
LIBRYBENDA**

etxebeste kalea 1, 943 36 11 15

ALDAMU



kale nagusia 10,
atzekaldea

943 37 27 95



betiko
ordutegian
943 57 63 79

Usurbilgo
BAZAR TXINOA

Aurtengo Sagardo Eguna, bertan behera

Sagardo Eguna ez dela egingo iragarri zuten duela hilabete. Espero bazen ere, albisteak tristura eragin zuen herritar askoren artean. Pena handiz hartutako erabakia izan zela adierazi zuten antolatzaileek, baina egoera dagoen bezala ikusita egokiena hori zela ondorioztatu zuten.

NOAUA! Espero bazen ere, nola hartu duzu Sagardo Eguna ez egiteko erabakia?

Ane Azkonobieta: Erabakia pena handiz hartu dut, azken finean urteko egunik gustukoenetakoa baita. Hala eta guztiz ere, erabakia erabat ulargarria da eta bizitzen ari garen egoera ikusita ez da harritzekoa.

Ander Orena: Egia da denok espero genuela erabakia, hala ere, komunikatu ofiziala ikus-teak denoi eman digu mina, nik uste. Baina, hartu duten erabakia egokia iruditzen zait, hartu beharrekoa baitzen.

Izadi Azkonobieta: Antolakuntzatik duela aste batzuk hartu genuen erabakia, ez genuen ordea publiko egin nahi, zaila egiten zitzaigun onartzea, baina horrela izan behar zuen. Ez dago beste aukerarik. Nahiz eta erabaki gogorra izan, hartu beharrekoa izan da.

Kinttin Seguro: Ondo hartu behar, ez baitago beste erremediorik orain bizitzen ari garen egoera dela eta.

N. Sagardo Eguna antolatzen



“Antolakuntzatik duela aste batzuk hartu genuen erabakia”, azaldu digu Izadi Azkonobietak. “Ez genuen nahi, zaila egiten zitzaigun onartzea, baina horrela izan behar zuen”.

ANE AZKONBIETA

“Erabakia pena handiz hartu dut, azken finean urteko egunik gustukoenetakoa baita. Hala eta guztiz ere, erabakia erabat ulargarria da”

ibili al zara noizbait?

Ane: Ez, ez naiz inoiz antolakuntzan ibili. Oraingoz ez, botatzaile lanetan oso gustura aritzen naiz, antolakuntzan sartu gabe. Hori bai, egunean bertan lan asko egiten dugu.

Ander: Ez, antolakuntzan ez naiz ibili, baina egunean bertan goizean goiz joaten gara egunean bertan antolatu beharreko

guztia antolatzeko. 8:00etan elkartzen gara eta mahaia jartzeaz gain, sagardo itxurako kartoiak jarri, sagardoa mahai bakoitzean antolatu, izotzetan... lan asko izaten da. Egia esan, oraingoz ez dut pentsatu antolakuntza orokorrean sartzea, eskubaloia uzten dudanean, agian animatuko naiz.

Izadi: Otsailean hasten gara elkartzen urtero, hasieran bi astetik behin elkartzen gara, hasieran hartu beharreko erabakiak hartu eta martxan jartzeko. Martxoan erdialdera astero elkartzen joaten gara, pixkanaka dena lotzen joateko. Gauza asko dira lotu beharrekoak, Udalarekin, sagardo elkartarekin, egunean bertan esku bat botatzen duguten bo-

londresekin...

Azken bi asteak izaten dira gogorrenak, nerbioak dantzan izaten ditugu, gauzak mila aldiz errepasatu eta dena ondo ateratzea nahi baitugu. Egund handia iristean merezi izaten du denak.

Kinttin: Bai, askotan gainera. Aurretik dena antolatzen genuen eta egunean bertan materiala frontoira eraman, mahaia kokatu, kuboak izotzez beteta... Sagardoak bertan sartu, mahaia kolotatu... Gainera garai hartan, egund guztian egoten ziren sagardo botatzaileak frontoian, azkeneko leher eginda bukatzen genuen. Nire ustez, orain egiten den bezala egokiagoa da lehengoarekin alderatuta.

Botatzaile izateko abilezia

NOAUA! Noizbait irabazi al duzu sagardo botatzaile onenaren saria? Gustatuko al litzaizuke?

Ane: Ez, ez dut irabazi. Ez daukat gogo espezialik, ondo pasatzen dut bestela ere eta gainera ez dut uste irabazteko trebetasun handirik dudarik kar, kar, kar.

Ander: Ez. Baina esan behar dut, aurreko urtean irabazteko gutxi falta izan nuela, oso ondo ari bainintzen kar, kar, kar. Eta bai, gustatuko litzaizake oholtzara igo eta bertan sagardoa botatzeaz gain, onena izatea. Esperientzia berria izango litzateke kar, kar, kar.

Izadi: Kar, kar, kar... Ez naiz inoiz botatzaile atera, hori nire familiako batzuei uzten diet, nik baino askoz hobeto egiten dute eta!

Kinttin: Botatzailearena ez, ez zitzaigun tokatu, gu baino abilagoak baziren orduan ere. Baina, egia esan, gustatuko

litzaizake. Hala ere, 1996an Sagardo Egunari irekiera emateko ohorea izan nuen, 10 urte bete baintuen botatzaile gisa. “Omenalditxo” niri egin eta bertsoa kantatzeko ere niri eskatu, hau da hau marka kar, kar, kar. Baina polita izan zen.

Kinttin Segurola: “Lehen ere, alkandora zuria eta zapia jarrita ibiltzen ginen”



Ander Orena eta Kinttin Segurola, Sagardo Egunean barrutik parte hartu duten bi herritar.

NOAUA! Gogoan al duzu Sagardo Egunean parte hartu ze-nuen lehen aldia?

Ane: Duela hiru urte izan zen, 2017.urtean. Botatzaile lanetan urtero ateratzen ziren ezagunek beti esaten zidaten oso ondo pasatzen zutela eta probatzera animatu behar nuela. Gainera, etxean sagardotegia izanda, aita dagoeneko erreleboa pasatzeko gogoz zegoen eta parte hartzera animatu nintzen, ustez gainera, botatzaile gazteena izan naiz. Oso esperientzia ona izan zen, ondorioz aurreko urtean ere parte hartzera animatu nintzen eta arazorik ez bada datozen urteetan ere parte hartzeko go-

IZADI AZKONOBETA

“Pintxoak banatzen lau bat urte egon ginen eta ondoren antolakuntza taldean sartu ginen”

goz nago kar, kar, kar. Aurrenekoan lehengusu txikiarekin atera nintzen, lehengusua ez baitzegoen hemen. Hurrengo bi urteetan biok atera ginen, aurreko urteetan bera irteten zen nire aitarekin eta azken bi urte hauetan biok aritu gara.

Ander: Lehen aldia orain dela 5-6 urte izan zen, 20 urterekin gutxi gorabehera. Koadrilako batekin izan zen eta ia urtero

berarekin atera izan naiz. Ordutik, ahal izan dudanean, beti atera izan naiz botatzaile gisa, beraz zerbait espeziala sortzen digulakoan nago. Atera ez naizen urteetan, eskubaloiko faseengatik izan da; urte batean nik jolastu nuelako eta bestean entrenatzaile bezala nengoelako.

Izadi: Bai noski. Koadrilako bat eta biok hasi ginen pintxoak banatzen. Bere ahizpa antolakuntzan zebilen eta laguntzeko jendea behar zutela esan zigun. Pintxoak banatzen 4 urte edo egon ginen eta gero antolakuntza taldean sartu ginen. Oso oroitzapen politak ditut, Sagardo Eguna beste ikus-

pegi batetik bizitu nuen lehen aldia izan zen, eta orduz geroztik “engantxatu” egin naiz.

Kinttin: Gogoan dut Loidirekin izan zela eta orain bezala, orduan ere, alkandora zuria eta zapia jarrita ibiltzen ginela.

Gogoan dut, urte batean, eguraldi oso txarra egin zuela Sagardo Egunean, eta egun horretan, bazkaldu ondoren, ni bakar-bakarrik jaitsi nintzela berriz ere frontoira zira trajea jantzita eta sagardoa zerbitzatzen ibili nintzela. Nire ma-haiko sagardoa amaitzean, ondoko mahaira joan eta horkoak zerbitzatzen nituela. Denbora luzean ez zen beste botatzaile-rik azaldu bertara.

Ander Orena: “Urteko egun onenetakoa da”

NOAUA! Zer suposatzen du zuretzat Sagardo Eguna?

Ane: Sagardo Eguna dudarik gabe urteko egun onenetakoa bat da. Oso egun polita da eta urtero irrikitan egoten naiz iritsi dadin. Ederrena ez bada, ederrenetakoa da.

Ander: Niretzako, dudarik gabe, herriko egunik onena da. Festak ere onak izaten dira, baina, Sagardo Eguna-ekin ezin dira alderatu, egun

honek zerbait berezia baitu herritarrentzat. Herrian dagoen ospakizun ederrena dela iruditzen zait, urtetik urtera hobetzen doana.

Izadi: Sagardo Eguna berezia da usurbildar guztiontzat. Askotan esan ohi dut guretzat Sagardo Eguna, donostiarrentzat Donostia Eguna bezalakoa dela. Urteko egunik ederrena, urduri jartzen gaituen eguna, mila zirrara pizten dizkiguna.

Herritarrek herriarentzat egin dako eguna.

Niretzat pertsonalki emozioz beteriko eguna da. Antolatze prozesua hasten denetik egunean bertan dena amaitu eta ondo atera dela ikusten den arte bizitzen diren sentazio guztiak dira bereziak, ederrak. Usurbilek horrelako festa bat izatea izugarria da, baina benetan hitzik gabe uzten nauena herriaren laguntza,

inplikazio eta gogoia dira. Urtero ehunka pertsonen laguntza gabe, ez litzateke Sagardo Eguna posible izango, eta hori da, niretzat Sagardo Eguna alderdirik ederrena, egun “magikoa” dela.

Kinttin: Sagardo Eguna ona izaten da, oso ona, gainera oraingoa lehengo baino hobea. Urteko ospakizunik onentxoenetakoa dela esango nuke, onena.

Hasi dira euskal sagardoaren online dastatze gidatuak

Gaur egun bizitzen ari garen egoera ikusita eta Sagardogintzaren beharrrak kontuan izanda, Sagardoa Route elkarteak proposamen berri batekin dator: Euskal Sagardoaren online dastatze gidatuak eskaintzea. Produktuen eskaintzari dagokionez, lehen berrikuntza izan da hau, baina egoera hobetzen doan heinean, aurtengo proposamen eta berrikuntzen berri ematen joango dira, bertako jendeak eta Estatukoak sagardoaren kulturaz goza dezan aurtengo urtean ere.

NOAUA! Gaur egun gauden egoera ikusita, zentzuzkoa da zerbait berria pentsatu behar izatea. Baina, nola otu zitzazuen dastatze gidatua online bidez egitea?

Olatz Mitxelena. Ardo munduan badaude halakoak, sagardo munduan oraindik ez. Gure eskaintza egokitzen ari ginela oso aukera polita iruditu zitzaigun bertako zein kanpoko bezeroek sagardoaz elkarrekin gozatzeko gune bat sortzea eta horri ekin genion.

Dastatze gidatu hauetako batean apuntatu nahi duenak zer egin behar du?

www.sagardoa.eus/eu/116-sarrera-ticketak web orrialdean sartu eta hementxe eros daitezke gure ekimenean parte hartzeko sarrerak, dastatzeak. Oraingoz maiatzean zehar eskainiko ditugu saioak, ostegunero 19:00etan hasi eta 45 minutuko iraupena izango du.

Zer izango da dastatze gidatu hauetan erakutsiko duzuenak?

Mikel Garaizabal enologo eta sumillerraren gidaritzapean egingo dugu ikastaroa, eta jolas bat bezalakoa izango da. Euskal Sagardoa zer den azalduko digu, sagardoak guretzat duen garrantziaz arituko gara... Eta noski, sagardoak dastatzen ika-



“Oso aukera polita iruditu zitzaigun bertako zein kanpoko bezeroei sagardoaz elkarrekin gozatzeko gune bat eskaintzea”, azaldu digu Olatz Mitxelena. Argazkia: Sagardo Route elkarteak.

OLATZ MITXELENA

“Produktuak etxera bidaltzen dizkiogu bezeroari: hiru euskal sagardo botila eta hiru kopa. Beraz, dastatzea ez da horren birtuala bihurtzen, benetakoa baizik”

siko dugu gure zentzumenen arabera. Funtsean, tarte atsegin bat pasako dugu sagardoaren bueltan!

Zaila dirudi online bidez horrelako ikastaro bat burutzea. Hala ere, ondo funtzionatzen badu honekin aurrera jarraitzeko asmoa al duzue?

Uste baino errazagoa dela esan-

go nuke. Hau konfinamenduari hasieran jarri izan bagenu martxan, arrotzagoa egingo zen akaso. Baina momentu honetan, pantailari hitz egitea edo begira egotea gure egunerokotasunaren zati bat bihurtu dela ikusita, ez da hain zaila.

Aukera hau oso ona bihurtu dela iruditzen zaigu. Produktuak etxera bidaltzen dizkiogu bezeroari, aurrez aipatutako dastatzea erosten duen momentuan: hiru euskal sagardo botila eta hiru kopa, sagardoaz modu berezian gozatzeko.

Prozesu hau, sagardoa.eus webgunean daukagun Sagardoaren online denda-ri esker bideratu ahal izango dugu. Eta beraz, dastatzea ez da horren birtuala bihurtzen, benetakoa baizik.

Enologo batek

gidatzen ditu saioak

Ekimen telematikoa honek sagardoaz gozatzeko aukera eskaintzen du. Mikel Garaizabalek gidatzen ditu dastatze-saioak. Izena ematen duenak hiru Euskal Sagardo botila eskuratuko ditu. 15 euroren truke, “ikasi nola zerbitzatu eta sagardoaren zentzumen balioak ezagutu!”. Apirilaren 30ean egin zuten lehen online saioa. Maiatza amaitu bitarte, ostegunero antolatuko dute saio bana. Hauek dituzue xehetasunak:

Maiatzak 21 osteguna

■ 19:00etan.

■ Iraupena: 45 minutu.

■ Dastatzeko produktuak: Hiru Euskal Sagardo.

Maiatzak 28 osteguna

■ 19:00etan.

■ Iraupena: 45 minutu.

■ Dastatzeko produktuak: Hiru Euskal Sagardo.

Oharra: saio batzuk euskaraz izaten dira eta beste batzuk gazteleraz. Egun bakoitzean zehaztuta dator hizkuntza.

Sarrerak eskuratzeko:

www.sagardoa.eus/eu/116-sarrera-ticketak



Mikel Garaizabal enologoak gidatuko ditu dastaketa saioak. Argazkia: Kronika.



Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Gure liburutegiko neskak

Konfinamenduak zain-tza zein garrantzitsua den konturatzeko balio izan digu: umeak zaintzea, ikasleak zaintzea, aitona-amonak zaintzea, ingurukoak zaintzea eta gu geu ere bai. Eta noski, horrekin batera konturatu gara zein garrantzitsuak diren zaintzaileak.

Zaintzaile asko daude eta denen lana da baloratzekoa, baina batzuk azpimarratu nahi ditut hemen eta orain: gure liburutegiko neskak, Bakartxo, Irantzu eta ikus-tesin aritzen den Marian. Konturatu al zarete nola zaindu gaituzten etxetik atera ezinik egon garenean?

Aurreneko egunetan informazio eta proposamen bonbardaketa bat jasan genuen orokorrean leku askotatik, whatsapp sutan zegoen: eskulan proposamenak handik, kantak hortik, ariketak hemendik, jolasak batetik, sukaldaritzako errezetak bestetik... Hura zen hura asperitzeko beldurra! Gure liburutegiko neskek, ordea, lasai hartu zuten kontua. Ez ziren bonbardaketa horretan sartu, dosifikatu egin dute beraien eskaintza, tamainan, neurrian.

Liburutegia itxi aurreko azken egunean jende asko gerturatu zen liburuak eta pelikulak mailegatzera. Ohiko arratsalde batekin alderatuta, mailegu kopuru bikoitza izan



Gure liburutegiko neskek, konturatuta edo konturatu gabe, kultura ekarri digute etxera, eta hori ere bada gu zaintzea.

AINHOA AZPIROTZ

“Konturatu al zarete nola zaindu gaituzten gure liburutegiko neskek etxetik atera ezinik egon garenean?”

zuten. Beraz, bazekiten jendeak bazuela zer irakurria eta zer ikusia etxean. Ez zegoen whatsapppe edo sare sozialen bidez gauza gehiago bidaltzeko presarik. Asmatu zuten nola zaindu jendea.

Etxeko liburuak irakurri eta pelikulak ikusi ondoren, ordea, ezin gehiago hartu, liburutegia itxita baitzegoen. Eta hor eskaini dute aukera berria: e-liburutegia. Nahiz eta aurretik ere zerbitzu hori egon, itxialdirako ezin aproposagoa bihurtu da.

Nahi izan duenari pazientzia handiz esplikatu diote zer eta

nola egin behar duen, deitu egin diote ea zalantzarik baduen, ea lortu duen nahi duena eta abar. Gertuko jarraipen goxoa egin dute, pazientzia handiko zaintza.

Liburuaren egunaren harira (apirilaren 23an) bideotxo bat egiteko proposamena luzatu zuten, xumea eta atseгина. Ohiko tertulia online egiten asmatu dute, eta gehiago ere aurreikusita dituzte. Ekimen horiekin guztiakin liburuari lekua egiten saiatu dira, gure egunerokotasunean liburuaren presentzia areagotzen. Eta egia da, etxetik atera ezinean egonda eta etxean denbora gehiago egon beharra izanda, liburuak konpainia ona bilakatu daiteke, eguraldi onarekin zein txarrarekin.

Itxialdian asko aipatu dira ariketak, zumba, pelikulak, bizkotxoak eta eskulanak, eta liburuak? Irakurtzea? Horiek

denak egitea baino errazagoa da liburu bat hartu eta irakurtzea. Ez du eskatzen sofa leku aldaterik, irina erosterik edo komuneko paperaren kartoiak jasotzen ibiltzerik. Itxialdiak aukera aproposa jarri du denon eskura. Eta gainera, familia guztiak egiteko modukoa da. Zeren... asko hitz egiten da umeen irakurzetatasunaz eta irakurketak ekartzen dizkien mesedeez, baina horrek berdin-berdin balio du helduentzat ere. Umeentzako adina liburu edo gehiago dau-de helduentzat herriko liburutegian, eta neurri, kolore, gai eta genero guztietakoak.

Kulturaz ere hitz egiten da, eta horren parte bat dira liburuak. Gure liburutegiko neskek, konturatuta edo konturatu gabe, kultura ekarri digute etxera, eta hori ere bada gu zaintzea. Liburuak eskuz esku eta etxez etxe ibiltzeak izugarrizko poza ematen die eta antzematen zaie. Lan horrekin denon kultura elikatzen eta aberasten dute.

Bideokonferentzietan jarduteko atzean liburutegia jartzea ondo gelditzen da, ukitu interesgarria eta intelektuala ematen dio, baina liburuak beste zerbaitetarako balio dutela erakutsi digute gure liburutegiko neskek, beti errespetutik eta zainduz.

Orain badakit nori jo nahi dizkiodan iluntzeko txaloak, nor eskertu nahi dudana.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.eus

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39



Zubiaurrenea 8
943 370 008


Erraustegiko eremutik isuritako amoniakoa aurkitu dute Arkaitzerrekan

GHK-k erraustegiarekin loturarik egon zitekeen ukatu zuen arren, azkenean bai, erraustegiaren eremutik isuritako amoniakoa izan liteke Arkaitzerrekako ehunka arrain hiltzea eragin zuena maiatzaren 9an.

Ikerketapean egon arren, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak Zubieta gaineko azpiegituren urak kudeatzeko sistema itxi eta propioak zituztela adierazi zuen arrain hilak agertu eta berehala. Euri-uren deposituak soilik isurtzen dituela, euri-urak.

“Ez genbiltzan oker”

Joan den astean ordea egoera zeharo aldatu zen. Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak aditzera eman zuenez, erraustegia kudeatzen duen Ekondakin enpresari zigor espedientea irekitzea erabaki du. Hedabideen arabera, “erraustegitik kanpoko” kamioi bat maiatzaren 7an deskarga egiten ari zenean amoniako isuria gertatu



Aurreko igandean, balkoietan koloretako arrainak jartzeko deialdia egin zuten; erraustegiaren aurkako sirena hotsekin bat eginez.

KAMIOI BATEN ISURIA

Hedabideen arabera, “erraustegitik kanpoko” kamioi bat maiatzaren 7an deskarga egiten ari zenean amoniako isuria gertatu zen.

zen.

Ildo beretik, Usurbilgo Udalak ur eta hildako arrainen laginak hartu zituen Arkaitzerre-

kan, arrainak hilak agertu ziren maiatzaren 7ko asteburuan. Laborategira bidali zituen. Jaso ditu emaitzak. Pentsa, “inguruko erreketan, 1mg/l amoniako izan ohi da kontzentrazio ohikoa”, Usurbilgo Udalaren esanetan. “Hilaren 10ean, 62 mg/l amoniako neurtu ziren”. Begi bistakoa honen bestez, guztiz ezohikoa zen amoniako kopurua erregistratu zela Arkaitzerrekan. “Arrainen azterketaren emaitzak jakiteko

egun gehiago beharko dira”.

Datuok eskutan, sare sozialean bidez Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak adierazi duenez, “ez genbiltzan oker, Asensio jauna: Arkaitzerrekako kutsadura erraustegite-plantak eragin du. Eta orain zer? Ze neurri zuzentzaile hartuko dituzue berriz ez errepikatzeko? Zeintzuk dira kontrol-mekanismoak? Nork babestuko gaitu? Erantzunak behar ditugu: gardentasuna”.

“Zubietako erraustegia kutsadura eta hondamendi fabrika baizik ez da izango”

Hala adierazi du Errausketaren Aurkako Mugimenduak, Zubietako Arkaitzerrekan hilak agerturiko arrainen harira. Mesfidantza agertu dute gertaturikoa argitzeko ikertzen ari den URA Uraren Euskal Agentziarekiko. “Ez dugu itxaropen handirik eduki behar beraiei kontrolarekin”. Aipatu mugimenduaren esanetan, “EAEko eta Gipuzkoako agintariek soka motzetik kontrolatutako erakundea da URA, ez dauka alferrik bere administrazio kontseiluan, bai Gipuzkoako

Foru Aldunditik erraustegia bultzatu eta gaur kudeatzen dutenak eta bai hari Jaurlaritzatik Ingurumen Baimenak eman dizkietenak”.

Gogorarazi dutenez, GHK-ren lehendakari eta foru ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensio “kontseilari den erakunde batek ikertuko du ea Asensio buru duen erakunde batek isurketa pozoitsurik egin duen”.

Isurketa muga gainditzea

Testuinguru honetan, pro-

baldi fasean den erraustegia “dagoeneko ingurumenean, osasunean eta ekonomian ari da kalteak eragiten”, Errausketaren Aurkako Mugimenduak ohartarazi duenez. Adibide moduan aipatu ditu azken aldian inguruetan pairatu duten usain txarra. Erraustegiak milaka tona hondakin erre dituela salatu dute, oraindik probaldi fasean dela. Dioxinen emisioa 24 orduz kontrolatu eta kutsadura areagotuz gero erraustegiaren jardura unean bertan etengo zutela gezurtatu

dute. “Zubietan, hasieran 2 hilean behin egingo omen dituzte kontrolak eta gero 3 hilean behin. Eta ez ahaztu aurrez abisatuko dutela ikertua noiz egingo dioten azterketa. Lotsagarria, ustelkeria hutsa. Bitartean, proba fasean egiten aritu diren hondakin erreketetan gainditu dituzte Eusko Jaurlaritzak emandako Ingurumen Baimen Bateria-tuan jasota dauden isurketa mugak, onartu zaiena baino kutsagarri gehiago ari dira isurtzen erraustegian”.

Ikerketa independentea abiarazi eta erraustegia berehala ixtea eskatu du GuraSOsek

GuraSOsek salatu duenez, Arkaitzerrekan ehunka arrain hilik agertu zirenean, URA Uraren Euskal Agentziako ordezkariak gertaturikoa ikertzera joan erraustegira bertara eta sarbidea ukatu zieten erraustegiko arduradunek. Horrek GuraSOsek salatu duenez, “atzerapena eta eragozpena eragin zuen”, jazotakoa berehala ikertu ahal izatea, kasuotan garrantzitsuena dena aipatu elkartearen esanetan, “gertaerak argitzen laguntzeko ebidentziak aldatu, desegin edo desagertu ez daitezen”.

Hasieratik egoki identifikatu arren, “itxaronaldi luze” baten ostean, gerora antza bai, Gipuzkoako Foru Aldundiko basozain batek eta URA-ren ikuskatzaile batek erraustegira bertara sartu ahal izan zuten. “Ez dago argi instalakuntzako arduradunen hasierako jarra zergatik aldatu zuten, ezta ikuskatzaileak bertan zehazki zer gestio egin ahal izan ziztuen”, GuraSOsen esanetan.

Aipatu elkartetik adierazi dutenez, maiatzaren 9an erraustegiko instalakuntzen gunean jazotakoa, ikuskatzaileak bertan sartzea eragozteak “legez kanpokoa da”. Kutsa-



Gertaturikoa argitzeko ikerketa independentea abiatzea eskatu du GuraSOsek eta erraustegia berehala itxi dezala galdegina dio Ingurumen Sailburuordeari.

GURASOS

“Arau hauste larria da, ikuskatze eta kontrol jarduera atzeratu edo eragozteak”

duraren prebentzio eta kontrol bateratuari lotutako legedia aipatzen du. Araudi honen arabera, “arau hauste larria da, ikuskatze eta kontrol jarduera atzeratu edo eragozteak”. 20.000-200.000 euro arteko isun ekonomikoa eta instalakuntzak bi urtez ixtea aurreikusten du aipatu araudiak, GuraSOsen esanetan.

Ildo beretik mintzatzen da baita Ingurumenaren Euskal Legea ere. GuraSOsek aipatu araudi honen 106. artikulua

ekarri du gogora. Ikuskapen lana egiten ari direnak autoritate agentetzat joko dira, aurrez jakinarazi gabe bertaratu ahalko dira, eta identifikatu ostean dagokien lana egin ahalko dute.

Dimisio eta argibide eskaera

GuraSOsek dioenez, “urgentziazkoak dira azalpenak eta argibideak” ematea, Arkaitzerrekan gertaturikoaren inguruan.

GHK-ren jokabidea auzitan jarri du GuraSOsek. “Hasierako jarrera zuzentzera eta istripu larria ukatzera behartua ikusi da. Gertatu zena ezkutatuz, herritarren laguntzari esker eman da ezagutzera. Arkaitzerrekako isuriari buruz

gezurra esan zuen, bere erantzukizuna ukatu zuen”. Jokabide berari eusten diola dio GuraSOsek. “Egia ezkututzen segitzen du”.

GHK-ren lehendakari Jose Ignacio Asensioren dimisioa eskatu du, Ahaldun Nagusia berehala agertu eta azalpenak ematea, bere esanetan iritzi publikoak jazotakoari buruzko xehetasunak ezagutu beharrak dituelako. URA agentziari aldis, “Asensioren interes gatazka ikertzea” galdegina dio GuraSOsek, agentziako administrazio kontseiluko kidea baita, eta “isurketa baimena duen kutsadura jardura baten sustatzailea” GuraSOsen esanetan.

Erraustegiaren berehalako itxiera eskaera

Horrekin batera, gertaturikoa argitzeko ikerketa independentea abiatzea eskatzen du GuraSOsek eta erraustegia berehala itxi dezala galdegina dio Ingurumen Sailburuordeari. Erraustegiko probaldi fase honetan gertatzen denaren erantzukizuna Kontratuaren Zuzendariarena dela gogoratu du GuraSOsek. Berari dagokio ikuskapen lana eta “azken hitza, probaldia etetea agindu dezake gainera”.

Euskadiko Auzitegi Gorenak legitimitatea kendu nahi diola salatu du GuraSOsek

Zubietako erraustegiaren hari-ara GuraSOsek abian dituen ekimen judizialak albiste egunotan. Zehazkiago esanda, 2016. urte amaieran erraustegiaren ingurumen baimenaren aurka Euskadiko Auzitegi Gorenean aurkezturiko helegitea.

Euskadiko Auzitegi Gorenak konstituzio-kontrakotasuna planteatu zion Espainiako Auzitegi Konstituzionalari eta honek

tramitera onartu du. Auzitegi Konstituzionalak elkarteak egiten duen euskal erakundearen ingurumen jardueren gaineko kontrol lanetik alboratzeko saiakeratzat jotzen du erabaki hau GuraSOsek. Zubietako erraustegiaren edota Zaldibarko zabortearen inguruan abiarazitako ekimen judizialek alboratu nahi dutela salatu du GuraSOsek. Erregu helegitea

aurkeztu du egunotan.

“Inmunitatea eta inpunitatea bilatzen dute”

GuraSOsen ustez, “jardun kutsatzaileen sustatzaileak” jotzen dituen euskal erakundeek ez dute herritarren kontrol demokratiko, kritiko eta independentearen pean egon nahi. Are gutxiago baliabide judiziale-tara heltzea. “Inmunitatea eta

inpunitatea bilatzen dute”.

Horregatik, norbere ideologia edo proiektu publikoekiko iritzien gainetik, GuraSOsek eskatzen du, “lehenetsi ditzatela osasun demokratikoa eta oinarritzko eskubideak eta arrazoi gehiagorekin osasuna babesteko eskubidea eta botere publikoen jardunaren gaineko kontrol bermeak, “injustizia nabarmen” honen aurrean.

Datorren ikasturterako aurrematrikulazioa zabaldu du AEK-k

2020-21 ikasturterako aurrematrikulazio epea zabaldu du AEK-k. Momentuz online bideratu ahalko da. Uztailaren 8a baino lehen tramitazioa egiten dutenentzat zenbait hobari iragarri ditu AEK-k.

2020-21 ikasturterako aurrematrikulazio epea zabaldu du AEK-k. “Hurrengo ikasturtean, 2020-21 ikasturtean, euskara ikasten jarraitu edo euskara ikasten hasi nahi baduzue, aprobetxatu AEKren matrikulazio eskaintza berezia”, iragarri dute.

Aurrematrikula uztailaren 8a baino lehen bideratzen dutenei zenbait hobari aplikatuko zaizkie: %5eko deskon-



Euskara ikastaroak maila guztietan eskaintzen ditu AEK-k.

AEK

“Uztailaren 8a baino lehen egiten duenak zenbait hobari izango ditu”

tua 20-21 ikasturteko matrikularen prezioan; ordainketa

malguagoa, epe bat gehituta ohiko ordainketa epeei; eta lehenetsuna taldeak eratzeko orduan”.

Gaurkoz, online

Aurrematrikulazioa gaurkoz online egin ahalko da. “Konfi-

namendutik ateratzeko prozesuaren bilakaeraren arabera, laster jakinaraziko dugu aurrematrikulak euskaltegian bertan egiteko epealdia”, iragarri du AEK-k.

Maila guztiak

Gogoan izan, euskara ikastaroak maila guztietan eskaintzen ditu AEK-k. Maila guztietako ikastaroak (A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak), motibaziorako jarduerak, autoikaskuntza metodoa, online zerbitzua....

Informazio gehiago:

■ 607 609 379

■ usurbil@aeek.eus

■ Web orrialdeak: aeek.eus muntteri.blogspot.com.es

Zirriborro Eskulan Tailerrak kanal bat zabaldu du Youtuben

Konfinamenduaren ondorioz, etxe barruan pasa behar izan ditugu azken asteak. Gutxi edo asko, egoera berrira egokitu behar izan dugu denok. Zirriborro Eskulan Tailerrekoek esate baterako, erakuslehoi bat zabaldu dute Youtuben, euren lanen berri emateko.

Herritarrak entretenitzeko. Susana Martinek arrazoi horregatik zabaldu zuen Zirriborro Eskulan Tailerraren kanala Youtuben. Etxean dituen gauzei eskulan bat egin du egunero eta sare sozial ezberdinetan partekatu du gero, tartean, Usurbilgo Artixten txokoa. “Nire senarrak laguntzen dit”, aitortu digu Susanak. “Berak grabatzen ditu bideoak eta extra moduan askotan gure katua agertzen da planoan”.



Etxean dituen gauzei eskulanak egin ditu Susana Martinek, eta sare sozial ezberdinetan partekatu ditu gero. Konfinamendua oparoa izan da.

ZIRRIBORRO TAILERRA

Oparoa da eskulanen eskaintza. 30 bat bideo topatuko dituzue Youtuben

Eskaintza oparoa

Susana Martinen semea eta senarra gaixotu egin ziren eta koarentena ezarri zieten. “Orduan okurritu zitzaidan kanala irekitzea”.

Youtubeko bilatzailean Zirriborro Eskulan Tailerra idazten baduzue, bertan agertuko zaizkizue Susana Martinek aste hauetan zehar igo dituen bideo guztiak. Eguzkilorea, txoriek jateko ontzia, postala, dantzaria... Oparoa da eskulanen eskaintza. 30 bat bideo igo ditu orain arte.

Datorren ikasturtean pentsatzen

Konfinamendua arintzen hasi zenean, Youtubeko kanalaren martxa etetea erabaki zuen. “Jarraituko dut bideoak egiten baina nire ikasleentzat”. Dagoneko hasi da datorren ikasturtean pentsatzen. “Espero dut tailerra ireki ahal izatea eta norbait animatzen bada ongi etorria izango da”. Izena emateko Susana Martinek jarri behar da harremanetan: 609 41 38 83.

“Gidabaimena ateratzerakoan euskarari lehentasuna emango niola argi nuen”

Urte garai honetan Buruntzaldeko udalek 18 urte bete dituzten gazteei gidabaimena euskaraz ateratzeko gonbita luzatuz, gutuna helarazi ohi diete. Urteak daramatzate, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalak eremu honetan ere euskararen erabilera sustatzen. Atal teorikoa euskaraz prestatzeko aukera eskaintzen dute eskualdeko hainbat autoeskoletan eta gidabaimena ateratzen dutenen artean urtero 400 euroko ordainsari bat zozketatzen dute. Iazko sarituaren hitzak dituzue lerrootan; Imanol Furundarena gaztearenak.

Zergatik hautatu zenuen euskaraz gidabaimena ateratzeko?

Imanol Furundarena: Gidabaimena ateratzerakoan euskarari lehentasuna emango niola argi nuen, euskarazko eta erdarazko bi aukerak egonda beti erdarara jotzen badugu, euskarazko aukera galtzen joango delako. Aldi berean ere nahia go nuen prestakuntza euskaraz jasotzea, nire euskara bera edo nire formakuntza aberasteko.

Egitasmo honen berri nola jaso zenuen?

Gehienbat koadrilakoen bidez.



Gidabaimena ateratzen dutenen artean urtero 400 euroko ordainsari bat zozketatzen dute. Imanol Furundarenak urtarrilean jaso zuen saria.

IMANOL FURUNDARENA

“Material guztia euskaraz dago. Niri ez dit aparteko zailtasunik eragin”

Adin ezberdinetakoak gaude, ni baino urtebete zaharragoak lehenago hasi ziren ateratzen eta orduan eman zidaten egitasmo honen berri; euskaraz edo erdaraz ateratzeko aukera zegoela, eta nire koadrilako gehienek euskara hautatu zuten.

Euskara nola dago txertatua arlo honetan?

Material guztia euskaraz dago.

Hitz batzuk euskarara itzuli behar dira, ahalik eta egokien ulertu eta hoberen erantzuteko. Halere niri ez dit aparteko zailtasunik eragin.

Alderdi praktikoarekin etorri ohi da aldaketa. Teorikoa hizkuntza batean prestatu eta praktikoa beste batean atera beharra.

Alde nabaria dago niretzat behintzat. Askoz errazago moldatzen naiz euskaraz erdaraz baino. Arlo teorikoa euskaraz landuta, zati praktikoa nire kasuan adibidez, irakasleak erdaraz hitz egiten zuen nirekin. Azterketako irakasle guztiak egokitu zitzaizkida-

nak erdaldunak ziren. Halere, praktikoko irakaslea euskalduna baldin baduzu, gazteleraz irakastea eskatu behar diozu. Bestela azterketa egunera iritsi eta aztertzaileak esango dizun moduan egoera bideratzen ez dakizu. Irakasleek eta aztertzaileek aldatu beharko lukete hizkuntza. Azterketa egunean ez duzu konfiantza atzean doan aztertzailearekin. Zure hizkuntzan ez baduzu hitz egiten, ez dugu segurtasun propiorik eta presioa eragiten du azterketa unean.

Dena kate bat da eta kate horretan hizkuntzak berebiziko garrantzia du, beste arlo askotan bezala.

Hazten doa gidabaimena euskaraz ateratzeko hautua egiten zoaztenon kopurua. Zuen inguruan ere nabari duzue hau?

Nire inguruan bada gidabaimena euskaraz ateratzeko iniziatiba, euskararen aldeko kontzientzia hori garbi dugulako, bestela desagertu egingo delako. Nire inguruan gidabaimena erdaraz ateratzea baldintzatzen duen bakarra, aurrez mekanika munduko formazioa erdaraz jaso dutenen kasua da. Bestela, euskaraz ateratzeko iniziatiba bada.

“Jendea gida-baimena euskaraz ateratzera animatu nahi dut”

NOAUA! Beste motibazioa, pizgarria, atal teorikoa euskaraz prestatu eta gaintzeagatik jaso daitekeen ordainsaria.

Imanol Furundarena. Bai dudarik gabe. Ilusio berezia egin zidan udaletxetik deitu zidatenean. Gehienbat komentatzen ari garenaren inguruan; zer garrantzitsua den kontzientziaztea gure inguruan gidabaimena euskaraz ateratzea. Bestela

beti erdarara joko dugulako eta euskara pixkanaka desagertzen joango delako. Bestalde ere asko kostatzen da.

Gidabaimena zertarako zaizu baliagarria?

Jada adin batetik aurrera, zure egunerokotasunean gauza berriak sortzen doaz. Inoiz ez dakizu zer tokatuko zaizun, alde batean edo bestean. Nire

helburua gidabaimena ahalik eta azkarren ateratzea zen, etorkizunean zerbait ateratzen bazait eta une horretan autoa behar badut gidabaimena izan eta erronka horri aurre egiteko prest egoteko.

Zalantzan dagoenari gidabaimena zer hizkuntzatan atera, zer aholkatuko zenioke?

Dudarik gabe euskaraz atera-

tzera animatuko nuke, zati teorikoa euskaraz egiten ari garen unean, nik uste denok sentitzen dugulako euskaraz ateratzeko ilusioa, eta aldi berean hazkunde hori igotzen doan heinean. Orain esan dudanagatik, animatzen dut jendea gidabaimena euskaraz ateratzera, erdarazko aukera beti egongo da eta hor. Euskarazkoa agian ez ordea.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa:

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Konfinamenduan gustura gabilta gurasoei baina etxe bila gabiltan bikote gazte bat gara. Biok hezitzaileak, lan kontratuarekin eta arduratsuak. 695 747 944

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilareñ 1ean ordaintzeko konpromisoa. 66115222.

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Giza-seme euskaldun eta adinekoa 687348223

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratu beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lana-

rekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negozia garria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatz kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretagian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume bat, interna bezela, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 664192760 / 722 48 39 94

Esperientzia eta erreferentziak

ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibiltatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibiltatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibiltate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deituzke. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibiltate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Es-



Zorionak Lide, zorionak Intza!!!

Maiatzaren 18an 9 urte bete zenituzten, ondo ondo ospatu zenutelakoan, muxu erraldoi bana.

Zorionak Naiara! Gure etxeko sorginak 9 urte bete ditu maiatzaren 20an! Ondo pasa eta ospatu dugu zure eguna. Bihotz handi eta askorekin 9 muxu handi handi... familia osoaren partez... Primeran ospatu dugu....

Zorionak! 9 urte printzesa! Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez.

perientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat 688637679, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala

lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska ardu-

ratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

BESTELAKOAK

Isabelita Mandarina Japoniarak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libreak dauka. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Heriotzak

Victoria
Muguruza
Arocena

Maiatzaren
10ean hil zen,
98 urterekin



Heriotzak

Maria
Portu Iribar

Maiatzaren 16an
hil zen,
92 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 21	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 22	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 23	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Igandea 24	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Astelehena 25	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteartea 26	GANDARIAS-URIBE Iñigo	Loiola 9. Lasarte
Asteazkena 27	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Maiatzak 21 - Maiatzak 31

Osteguna 28	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala 29	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 30	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 31	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda maiatza

21 osteguna

■ **Euskal Sagardoaren dastatze gidatua, online.** 19:00etan. Gidaria: Mikel Garaizabal. Antolatzailea: Sagardoa Route. Informazio gehiago www.sagardoa.eus/eu/116-sarrera-ticketak helbidean.

23 larunbata

■ **Usurbilgo Lanbide Eskolan, ate irekien jardunaldia. Aurten modu telematikoa.** Informazio gehiago: lhusurbil.eus

24 igandea

■ **Erraustegiaren aurkako sirena-hotsa** 12:00etan.
■ **Sagardo Eguna, etxetik.**

Usurbilgo Lanbide Eskolan, ate irekien jardunaldiak

Usurbilgo Lanbide Eskolak urtero antolatzen ditu ate irekien jardunaldiak. Osailean egin zuten lehen saioa eta beste biak maiatzean egingo dituzte. Azken bi hauek ordea, modu telematikoa izango dira: maiatzak 23 larunbata edota maiatzaren 27an asteazkena. Eskolaren web orrialdean sartu behar duzue, lhusurbil.eus helbidean. Bertan lotura bat topatuko duzue, klik bat bakarrik egin, erraz konektatzeko.

Interesatuak daudenei, Usurbilgo Lanbide Eskolatik gomendio bat luzatu nahi zaie: “ate irekien saioetan parte hartu baino lehen, komeni da izena ematea gure web orrialdean. Bisita birtualaren estekarekin izena emateko formulario bat dago. Ez da derrigorrezkoa baino guretzako abantaila da, taldeak hobeto antolatzeke”. Formulario hori ere, lhusurbil.eus web orrialdean topatuko duzue.



Modu telematikoa egingo dira lhusurbil.eus helbidean. Bi aukera daude: maiatzaren 24an larunbata edo maiatzaren 27an asteazkena.

Lanbide Eskolaren Eskaintza

Usurbilgo Lanbide Eskolak erdi eta goi mailako zikloak eskaintzen ditu, euskaraz eta erdaraz, eta goi mailakoetan parte bat ingelesez egin daiteke. “Gure zikloak espezialitate hauetakoak dira: Administrazioa, Elektrizitatea eta elektronika, Mekanika, Mantenimendua, Energia eta ura”, aurreko astean Lanbide Eskolakoek azaldu zigitenez.

Igande honetan, edertu etxeko balkoiak

Datorren igandean ospatzekoa zen Sagardo Eguna baina pandemiaren ondorioz, bertan behera utzi behar izan dute. Hala ere, kaleak girotzeko xedez, Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak ekimen ikusgarri bat jarri du martxan: etxeko balkoiak edertzeko proposamena.

Elkarteak Artzabalen duen egoitzatik pasa behar da plastiko zatia jasotzera (Guria tabernaren ondoan dagoen bulegoan). Plastikoen banaketarako bi hitzordu hauek zehaztu dituzte:

- Maiatzak 22 ostirala: 18:00-20:00.
- Maiatzak 23 larunbata: 11:00-13:00.

Datozenak

Usurbilgo jaiak ospatuko dira baina beste formatu eta ezaugarriekin

Ekainaren 1etik aurrera, uda parteko kultur ekitaldiak antolatu ahal izango dira. Ospakizunok egin ala ez erabakitzea ordea, tokian tokiko antolatzailerak eta udalen esku utzi du Eusko Jaurlaritzak.

Aurreko astean Usurbilgo Jai Batzordea bildu zen, alarma egoera indarrean jarri zutenetik lehen aldiz. Jaiak antolatzea adostu dute, baina ez aurreko edizioetan ospatu izan ditugun moduan. “Festen antolakuntzari beste forma bat ematea erabaki dute. Beraz, festak ospatu, ospatuko dira, nahiz eta beste formatu eta ezaugarri batzuekin izan”, berri eman dutenez. Aurrerago emango dituzte xehetasun gehiago.



Aurreko astean Usurbilgo Jai Batzordea bildu zen Potxoenean.



ANORGA TXIBI S.L.

KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Usurbil Autoak

MEKANIKA-KARROZERIA



SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Igande honetan edertu etxeko balkoiak!

Jaso plastiko zatiak
Artzabalen
dugun egoitzan
(Guria tabernaren ondoan)

Maiatzak 22 ostirala: 18:00-20:00
maiatzak 23 larunbata: 11:00-13:00

#UsurbilgoSagardoEguna
#sagardoeguna



**MAIATZAREN 24AN
TXOTX EGIZU
SAGARDO
BOTILA BATEKIN
🍏 🍏 🍏 ETA 🍏 🍏 🍏
SARE SOZIALETAN
PARTEKATU!**

#USURBILGOSAGARDOEGUNA
#SAGARDOEGUNA



HERRIKO SAGARDOA EROSI BERTAKO SALTOKIETAN EDOTA ZUZENEAN USURBILGO SAGARDOTEGIEI.

Konfinamenduan, egizu txotx balkoian!



Maiatzaren 24an, igandea
#usurbilgosagardoguna



Usurbilgo Udala